

# DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 292. zenbakia. 2020ko iraila



**Herriko ondarea  
zaintzeko ordua**

TAJERAS DE MAR ENCENDIENDO PARTI EN EL 85101  
Encendido de la parte superior



# IRAZABAL

---

## clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.  
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, inplantologian.  
**Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
**Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatu.  
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatu.  
**Autran Institutua. Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Doktorea.**

**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00**etatik **22:00**etara  
**Zapatuetan:**  
**10:00**etatik **14:00**etara

# Irribarreetan adituak

## Etor zaitez gu ezagutzera

**Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak**

**JARRAI IEZAGUZU**

**f Facebooken:** Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk. - **20600 EIBAR**  
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale zeharbidea 2, 1.  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.eus

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Alazne Aiestaran,  
Amaia Arginzoniz,  
Estibalitz González,  
Libe Solozabal  
eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA  
ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Dorleta Vidal.

**LAGUNTZAILEAK:**

Antonio Hernández 'Cuco',  
Juan Antonio Izagirre,  
Patxi López  
eta Juan Carlos Martín.

**ARGAZKIAK:**

Edebe, EITB, Ion Fiz,  
Estibalitz González,  
Juan Antonio Izagirre,  
Izaro, Jeanne Mendoza,  
Iñaki Mugarza,  
Valentin Mugarza,  
Bea Ugena,  
Dorleta Vidal  
eta Maite Yarza.

**PUBLIZITATEA:**

943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Piedi Eizagirre,  
Ayoub Hdidou  
eta Olatz Vidal.

**TIRADA:**

2.425 ale.

**ISSN:**

1133-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-213/1994.

*Drogeteniturrik ez du  
bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako  
iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko kantuak

*Herritarron ahotik*

Gaia: ume kantua.

## Txikitxu polit hori

(Entzuteko: [www.alboka.es](http://www.alboka.es))

Txikitxu polit hori  
zu neure laztana,  
katiatu ninduzun  
libria nintzana.  
Libriak libre dira  
zu ta ni katibu,  
librerik hobe dala  
guztiok dakigu.

Txikitxua zera baiña  
haziko zera ondiño  
ta ez bazera hazten be  
ez zaitxutela utziko.  
Maitia maite zaitut  
zu holan banozu,  
biok biziko gera  
zuk gura badozu.

Txiki-txikitxua ta  
polit-politxua,  
nori eman diozu  
neuri agindua?  
Agindua agindu  
agindu ezkeru,  
emon biharko dozu  
orain edo gero.  
Loooo!



## Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA .....4

Maite Yarza (Palma Mallorcakoa)

ELKARRIZKETA .....5-7

Jeanne Mendoza instagramerra

MALLABIAN ZER? .....8-10

Garia berriro gure artean

ERREPORTAJEA .....12-13

Kanpandorreko erloju zaharrak

ERMUAN ZER? .....14

Uxue Alberdi eta Iñigo Etxe Ermuan

MOTZEAN .....15-16

Txabi Armalen ipuin berria

BOTEPRONTOAN.....17

Esther Correa

IRITZIA .....18

Modu etikoan zainzen ditugu  
mendekotasuna duten personak?

ZORION-AGURRAK .....19

Saldu, erosi edo agurtu

ANTZINAKOAK.....20

Ermuko eta Mallabiko argazkiak

SAREAN GALDEZKA .....21

Uste duzu plazako obrak aurten  
bukatuko direla?

URRIKO AGENDA.....22

**Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:**



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

# Maite Yarza

Oin dala bost urte juañ zan Bartzelonara graduondo bat egitera, urte beteko gauza izango zalakuan... Azkenengo bixak Palman daroiaz, Mallorcan. Bartzelonatik lanpostu hobe baten eskaintza onartuta juañ zan, probatzera.

**- Erabaki erraza izan zan?**

Ez zan erraza izan bizkor baten izan zalako eta Bartzelonan gustora neualako. Nire lehengo mutilari lanpostu on bat emon zotsen eta pixkat sorpresa izan zan. Orduan, lana topau neban nik be, eta hona etorri giñan bixok. Halan da be, ondo urten jata, hamen gauza onak lortu ditzudalako.

**- Zelan imajinatzen zenuan leku hori?**

Pixkat danok dakaguna buruan: kalak, eguraldi ona eta horrek gauzok. Kunplitzen dau kanpotik dakagun ideia honekin, baiña gauza gehixau dakaz, mendixa be badaka eta kultura desberdina da.

**- Zeozerk jo dotsu arreta bereziki? Ohituraren batek-edo?**

Hamengo ohiturak jaixak dia, eta San Sebastian da urteko jai inportantiena. Eitxen dira las torradas eta kalera ataratzen dabez barbakoak. Eta San Juanak hondartzetan ospatzen dira, suakin eta be bai torradak eitxen. Jaten dabe *frito mallorquina* eta el *variata*, okeliakin eindako nahaste moduko bat, eta goizeko ha-maiketetan jaten dabe! Horrez gain, hamen benetako


ensaimada dao eta ez han saltzen doskuezen horrek! Eguraldi aldetik, hamen udako hillabetiak martxotik urrira arte dira, eta han bi edo hiru bakarrik.

**- Zein hizkuntzatan eitxen da berba bertan? Ondo moldatzen zara?**

Hamengo hizkuntza mallorkera da eta ez naz oso ondo moldatzen berba eitxeko, baiña oso ondo ulertzen dot. Aurretik katalanez berba eitxeko moldatzen nintzan eta ulertzeko be, baina hona etorri ta *mallorquina* ezagutu nebanian ez neban bapez ulertzen. Oin arazo barik ulertzen dot; berba eitxerako orduan... ikasitxako katalana eta hamen hartu dodazen espresiuñak nahastau eitxen ditzut. Hizkuntza honek bada-kaz gauza politxak, neri katalana baino gehixau gustatzen jata.

**- Zeozerk botatzen dozu faltan?**

Ba janarixa eta hango mendi eta paisajeak. Hamen ez dago errekarik, hori da igual gehixen *moskeatzen* nauena. Dakazena dia uharrrak, eurixa eitxen dabenian eta neguan pixkat betetzen diranak urakin. Era berian lagunak, familixia eta asko bo-



tatzen dot faltan be bai euskeraz berba eitxia, ze hamen nire eguneroko bizitzan ez dot erabiltzen. Talde txiki bat dago Palman euskera ikasten dabilena, Mallorcako pare bat dagoz eta kanpotik jauzi diranak. Batzutan juañen naz pixka bat laguntzera edo mintzapraktikak eitxen laguntzera.

**- Zelakua da zure egun arrunt bat?**

Goizetan klasiak prestatzen egoten naz, publikaziñak eitxen, materiala erosten eta horrek gauzok. Arratsaldietan, klase partikularrak emoten ditzut. Gero, enpresa batekin, umieri ta gaztieri emoten dotset tailerrak, pintura, eskulanak... Helburua da umiak artea erremintxa moduan erabiltzia, alde soziala gehixau garatzeko eta ez artistikua. Tailarrak emoten be banabil pintura eta marrazketan zentrauta, teknikak ikaste-ko eta jendiak ondo pasa-

tzeko margotu eta marraztu bitxartian. Asteburuetan eskursiñoren bat eitxen dogu, kalaren batera-edo. Eta gaiñera, eskalada talde batera apuntauta nago. Gehixen bat rokodromuan eitxen dogu, baina noizian behin be mendira juañen gara.

**- Noiz egon zara Ermuan azkenengo aldiz? Noiz bueltatuko zara?**

Abuztuan egon nintzan. Bidaia espres bat ein neban kotxia eruateko eta apenas familiakin egun bat bakarrik egon nintzan. Bestela, zutaillian egon nintzan ezkontza baten. Aste betian bai emon zotan denporia jendiakin egoteko eta familixia ikusteko. Benetako bisita batek eskatzen dabena eitxeko behintzat!

**- Ermura bizitzera bueltatuko zarela uste dozu?**

Momentuz hamen gustora nauenez, ez dot planteatzen Ermura bueltatzia.

Libe Solozabal



OINAK

LEIRE MAYORA

---

PODOLOGOIA

Erdikokale 1, 1. A  
48260 Ermua  
☎ 943 17 47 44



Jeanne Mendoza, instagramerra:

## “Zartagin eta kazola artean inprobisatzea gustatzen zait”

Duela urtebete inguru sortu zuen Instagrameko kontua Jeanne Mendoza ermuarrak (@maryjane\_ck), eta bertatik zabalitzen ditu mundura bere errezetak. Amamaren ondoan ikasi zuen kozinatzen, eta gogoan du txikitan frijituen bolak egiten laguntzen ziola asteburuetan. Gaur egun barazkiak eta arraina dira nagusi Jeanneren sukaldean, baina denetik kozinatzen du, eta Instagramen dituen 600 jarraitzaileek badakite: aza morea, berakatz beltza, *elikoidaliak*, portobello perretxikoak, *bao* ogiak... Osagaiak janari goxoa bihurtzen dira Jeannen sukaldean jazz, blues eta soularen erritmora.

elkarrizketa

- **Elikadurarekin zerikusia duten ikasketak dituzu?**

Ez. Inoiz pentsatu izan dut honekin zerikusia duen zer-bait ikastea, baina Turismo ikasten ari naiz. Txikitatik ikusi izan dut amama sukaldetan, oso sukaldari ona da, eta orain niri ere asko gustatzen zait kozinatzea. Musika jartzen dut, eta nire saltsan nago! Gastronomiarekin lotutako zer-bait egin ahal izango nuke, azkenean turismoaren munduan ere gauza horiek sartzen dira.

- **Zein da zure helburua Instagrameko kontuarekin?**

Afizioa da. Zoragarria litzateke jarraitzaile gehiago izatea, baina ez zait hain garrantzitsua iruditzen. Ez da helburua.

- **Instagramen zuk kozinatutakoaren irudiak ikus daitezke. Azaltzen duzu plater horiek nola prestatu?**

Normalean irudia bakarrik ipintzen dut, eta osagaiak aipatu. Interesgarria litzateke azaltzea nola dagoen kozinatuta, baina ez daukat horretarako denborarik. Hala ere, argazkiren bat igotzen dudanean, jarraitzaile batzuk galdetu egiten didate nola egin dudana, eta horrek ilusio handia egiten dit. - **Nortzuk dira zure jarraitzaileak?**

Ermuko jendea, ezagunak eta kozinatzea gustuko du-

tenak, tabernaren bat... Askotan galdetzen didate ea sukaldaria naizen.

- **Zure argazkietan ikusten diren osagai batzuk ez dira etxe guztietan egoten...**

Depende. Instagramera igotzen ditudan argazkiak asteburuetan prestatutako janariarena izaten dira, eta egun horietan gauza bereziagoak egiten ditut, nik asmatutakoak gehienetan.

- **Zenbat denbora ematen duzu hurrengo asteburuan prestatuko duzun plateren pentsatzen?**

Normalean astean zehar pentsatzen joaten naiz. Beste batzuetan inkestaren bat egiten dut Instagramen, jarraitzaileek proposamenak egiteko; eta sarritan merkatura joaten naiz, eta topatzen dudaren arabera erabakitzen dut zer egin.

- **Ermuan erosten dituzu osagaiak?**

Bai, gehienetan bai. Batzuetan Bilbora joaten naiz zer-bait berezia behar badut, edo Eibarrera, baina orokorrean herrian erosten dut. Egunotan Bakion nago, eta kostaldean gauza ezberdinak daude...

- **Beste kulturetako platerak prestatzen dituzu?**

Bai, sarritan. Gustatzen zait plater txinatarrak, japoniarrak, mexikarrak edota marokoarrak egitea: pikan-



tearekin, espeziekin, sushia, bao ogia...

- **Zure kontuan zaila da okelarekin egindako errezetak topatzea...**

Arraina eta barazkiak jaten ditut gusturago. Jate txeren batera noanean aprobetxatzen dut okela jateko.

- **Postre gutxi ere...**

Ez naiz gozogintzan aritzen, egia esan. Noizbehinka gailentaren bat egiten dut, baina ez zait gehiegi gustatzen: zartagin eta kazola artean hobeto moldatzen naiz. Gozogintzan errezetak hitzez hitz jarraitu behar dira, neurriak oso zehatzak izan behar dira... eta niri inprobisatzea gustatzen zait.

- **Zenbateko garrantzia dute zure lanean osagaiak, prestatzeko erak eta aurkezpenak?**

Osagai onak badituzu, erraza da gauza gozoak egitea, baina horrez gain su-

kaldatzeko ideia txiki bat izatea beharrezkoa da. Ez da gauza bera koxkor bat poteko tomatearekin prestatzea, edo etxean egindako tomatearekin, adibidez. Aurkezpena ez zait hain garrantzitsua iruditzen. Instagramerako bada bai, nahi dudalako nire perfilean argazki politikak ikustea, baina bestela, zapore ona badauka, ez dauka zertan plater polita izan.

- **Izan ere asko zaintzen dituzu argazkiak, eta janaria mahai-oihal, plater eta osagarri ezberdinekin lagunduta aurkezten duzu...**

Betidanik gustatu zait argazkiak egitea, eta dekorazio eta janari aldizkari asko erosten ditut. Arretaz begiratzen dut mahaiak nola dauden dekoratuta, zein mahai-oihal mota jartzen dituzten, loreak dauden edo

**“Osagai onekin erraza da gauza gozoak egitea, baina kozinatzeko ideia txiki bat ere behar da”**



**Caperos**

Pinxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak  
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

**OSASUNA · ESTETIKA  
EDERTASUNA**

*Marfil*

*Ile-apaindegi bat  
baino gehiago!!*

 Egokitutako burua  
garbitzeko konketa

**943 17 28 09 · Goienkale 12**

ez, zein trikimailu erabilzen diren platerak dotore aurkezteko...

**- Gustatzen zaizu ingurukoentzat kozinatzea?**

Bai, asko, orduan esperimentatzen dut gehien. Egunerokoan, niretzat eta amarentzat, ez dut gauza arrarorik egiten, baina lagunekin eta familia gehiagorekin egotea gustatzen zait, kazola handiekin ibiltzea. Faltan botatzen dut txoko bat izatea lagunekin astebururo afariak egin ahal izateko...

**- Nola daramatzazu kritikak?**

Ondo, uste dut ona dela kritikak jasotzea: hanka sar-

tu duzun, hobetu beharrekoa, ideia berriak jaso... Zerbait txarto irteten bazait, triste jartzen naiz, baina badakit hurrengoan hobeto irtengo zaidala.

**- Badago egiteko daukazu errezetarik?**

Bai, *tayina* egin nahi dut. Bildotsarekin egindako errezeta marokoarra da eta, prestatu ahal izateko, *tayin* deritzon lapiko berezia behar da. Baina gutxika-gutxika noa gauzak lortzen, ezin da dena batera erosi!

**- Kozinatzeo tresna asko dituzu etxean?**

Nire ustez ez dira asko, gehiago nahi nituzke, baina... Eguneroko gauzak egiteko nahikoa da.

**- Baten bat aipatzekotan...**

*Bao* ogia egiteko banbuzko *vaporera* bat. Sifoi bat ere nahiko nuke, nitrogenoarekin lan egiteko tresnak... Askok gustatzen zait sukaldaritza modernoa, baina tresna asko behar dira horretan jarduteko. Olentzerori zerbait eskatuko diot!

**- Uste duzu gaur egun garrantzi handiagoa ematen zaiola elikadurari duela urte batzuk baino?**

Baietz uste dut. Azken urteotan gastronomia asko zabaldu da, eta uste dut nahiko kontzientziazatuta gaudela,

## “Kozinatzeo tresna gehiago nahi nituzke, baina gutxika-gutxika noa gauzak erosten”

badakigu osasuntsu egoteko denetik jan behar dugula. Hala ere janari azkarra hain eskuragarri dugunez, batzuetan janari osasuntsua alde batera lagatzen dugu. Uste dut aldaketa hori gazteen artean eman dela batez ere: dieta mota ezberdin asko ezagutzen ditugu, arrain gordina jaten dugu (sushia), proteina alternatibo asko ezagutzen ditugu... Orain begetariano eta begano asko daude, esaterako, ez dut uste lehen horrenbeste zegoenik.

**- Eta produktu ekologikoak modan daude?**

Jatetxe batek produktu naturalak erabiltzeak asko saltzen du. Jendea errazago doa leku horietara, baina ez dakit modan dagoelako, edo benetan horrelako produktuak kontsumitzea nahiago dugulako. Hemen “Km0” produktuek arrakasta handia dute, eta nik neuk ere gure itsasoko arrainak eta inguruko baserrietako barazkiak erosten



ditut. Lehen esan dudana bezala, oso garrantzitsua iruditzen zait kalitatezko produktuak erabiltzea.

**- Zer diozu prozesatuei buruz?**

Produktuaren arabera, kontra edo alde nago. Saihestu egin behar dira, baina herri guztietan ez dago produktu ekologikoak erosteko aukerarik. Dena den, ziur nago denok kontsumitzen ditugula prozesatuak. Adibidez, olioak elikagai prozesatua da. Zaila da esatea elikagai prozesatuak onak edo txarrak diren.

Dorleta Vidal



**FUB** Mediku psikiatra  
Psikoterapia psikoanalitikoak  
Psikosomatika

**Fernando Urizar Barandiaran**

Ego gain, 18-1A. EIBAR. Tel: 615 71 54 04  
Bailen kalea, 9-1 ezk. BILBO. Tel: 94 416 49 06  
furizar1@yahoo.com

ARKITEKTURA ESTUDIOA  
BERRITZE LANAK ZURE ERAIKINEAN  
Ez dakizu nondik hasi?  
GURE LANTALDE TEKNIKOAK  
LAGUNDUO DIZU

**SPARA** ARKITEKTURA

ZUK ERABAKI [www.spara.es](http://www.spara.es)  
info@spara.es

Probaleku, 4 Bis, Bajo 48260 Ermua - Bizkaia 943 17 70 57

**ZK**

**ZUZENBIDE KONTUAK**  
Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina  
Tel: 846080080  
Mugikorra: 688885435  
zuzenbidekontuak@gmail.com

**CAPRI**  
PIZZERIA  
943 03 33 15

**RIF**

ITURGINTZA KONPONKETAK  
Marques de Valdespina 16  
ERMUA  
605 71 10 81 / 688 71 27 10

# Etxeko eta etxerako garixe

**Elgetzu baserrixen aspaldiko ilusiño bat gauzatu dabe aurten: etxeko soluen garixe erein eta batziana. Pozarren emon doskue guztiaren barri bertako seme Pello Mugarzak eta beronen koiñata Bea Ugenak.**

**E**z zan boteprontoko gauzie izan, ez. Oin dala hamar bat urte atzera eruten gaittu kontakizunek: Iñaki Mugarza eta Bea Ugenak San Juanetako sobrie euren etxeko garixaz eitteko akordue euki ebenera. Beak diñoskun lez, “ortu bazterrien erein apurtxo bat eta haxe erabiltzen gendun sobrie betetzeko”. Baiña ez bakarrik baserrixen: irakasle dan Ermuko ikastolako ortuen be urterortero erein izan dabe eta garixaz gain, “batzutan espelta, bestietan zekalie edo garagarra... klase desberdiñek, ikasliek ezagutzeko”.

Ointzuago baiña sorpresa txiki bat ekan Elgetzuko sabaxek gordeta: han azaldu jakuezen 50 urtetik gora ekezen ehunka gari-buru, txortatxoka, gari-azauetan lotute. Beste sabai bateko garbittasunien suertau bazien harek azauok, oso-osorik eta itxura baten ondo euazanak, haren baten sugarretan amaittuko eben! Elgetzuarrok, baiña, haren balixuaz jabetu zien: kimi-kiaz tratau bako mende erdi atzeragoko gari-hazi garbi-

xen aurrien euezen. Irribarretsu gogoratzen dabe zelan “etara genduzan azau pillue sabaittik, eta hantxe, gari-aliok topatzen, pentsauaz erein ezkerro, erneko die, ez ete die erneko...?”. Hara eta hona, erakunde desberdiñetara jo eben. Pellok azaldu lez, “Hazixaren elkartekuek etorri zien eta Neikerrera be eruen genduzen, lurra aztertzen eta hazixek aukeratzen bihera eitten daben horretara, ikusteko ia hazixok ernetzeko moduen euazen. Apraposko makiñak ekezenez, aprobak ein zittuezen, laboratorixuen be azertu, baiña ezin izan ebezen berpiztu”. Alperrikuek ba ahalegin guztiok, ez eben aurreraik ein, Bearen berbetan “antzuak zielako, denpora larregixan ondorixoz antzutu eta erne ezinik geratu zielako”. Ale pillotxuaz geratu zien eta Elgetzun urte horretan, ortu baztertxuen eta badaezpadan lorontzi batzutan, haxe garixe erein zan, etxekue. Hillabetiek beranduo, ahalegiñe einde, penatxuaz ikusi eben han ez jakuela garixan buru berdeik bistaratu!



Azauek lotzen.

Garixaz urune, honaz baserriko-ogixe... Elgetzuko ogi-labie martxan dao gaur egun be, Valentin Mugarzaren ekimenez. Beronek ogigintzarako biher dittuen urunek lotu zittuen etxe-kuok barriro garixakin. Bean berbetan “Araba aldeko urune ekarten hasi zan, ekologikue, ogi integralak-eta hasi zalako eitten. Behin urune ekarri biherrien gari-aliok ekarri zittuen”. Migel anaiek ehotzen zotsen, “berak asmatutako tramankulu batekin urundu, urundu be” Pelloren akorduz. Azkenien, Valentinek jirautako gari-ale zakukadie etxien eukitzeran, Iñakiri okurridu jakon haxe eraittie oinguen. Igezko azarue zan eta etxe ondoko lur kuadro ez txixixe gari-leku lez prestau eben.

## Horittute

Errezena einde euen: ereittie. Eta hazi be bakar-



Igitaixaz mozten.



Garixe horittute.

bakarrik ein eban, euzki eta euri-ure lagun, simaurre edo ganauan txise zabaltzeko premiña barik. Baina uda sasoiko giro beruetan ha moztu ein biher zan eta aletu eta... Valentin eta Bea, antxiñakuen estilora, igitaixaz hasi zien fin-fin. Moztioik baiña noizko amaittu! Igitai hutsien eitteko sailtxue zala ikusitte, azkenien

## Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN  
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08



**ORBE**  
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa

- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tailerra:  
Zearreko Buelta 2  
943 17 66 34 - 630 01 13 41  
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1  
48260 Ermua (Bizkaia)  
943 17 98 60  
persianasorbe@gmail.com



Iñakin desbrozadorian burrundadapien ein eutsen azken patrifiliuok horittutako garixorri. Azauetan lotu, sabaixen sikatzen ipiñi... Abuztue ate-joka. Gari-joterako makiñie Eibarko Zozola baserritik jirau eta, burdixan faltan, haren bille erroberadun karro batzaz jian zien, ume eta guzti. Zapatu bero baterako ein eben gari-azauok joteko deialdixe; gainontzeko anai-arreba, koiñatu-koiñata, etxeko ume eta abarrok batu zien. Jaixe!

#### Errotara bidien

Lehenatikuek garixe jo biher zanian, hau da, moztu eta gari-aliek lastuandik banandu biher zian sasoién, gora begire bizi zien. Eurixek ez harrapatzie izeten zan baserrittarren ardura bakarra, siku biher zan, ze umeldu ezkeru joteko txarto ibiltzen zien. Makiñan sartzeran, Elgetzuko garixek sikuaz sikuaz kri-kri eitten ei

eban; haxe seiñalerik onena! Hemengo klimiek eragiñik euki daben galdetute, agudo Pelloren erantzune: "Urun eñ arte ez dao jakitzeik!". Eta Goitta auzuen gauzatu daben 9 hillebeteko prozesuai, haxe falta jako, errotara erutie ehotzeko, uruntzeko. Jakiñie da lehenao errotak edonun eta ugeri euazela, ez ostera gaur egunien. Beak aipatzen doskun modure, "Valentinek berba einde deuke Oñatiko lehengo erako errota batzaz, baiña sikutiaz ure falta eta momentuz ez ei dake errotie martxan jartzeko beste urik".

"Mallabixen azkenengo gari-saille gure baserrixen erein zan" aittatzen dosku Pellok, halan entzunde dakalako; bueltako hau be bertan etara dabe aurrera, labore, zereal honi gure artien ondiñok lekue ein ahal jakola erakutsiz. Lur umel eta berdiotatik aspaldi ezkutau zanez, dakan balixo etno-



Azauek eitten.

grafiko zein bioaniztasun puntuai erreparatute-edo, Euskadi Irratiko Landaberri saioan Pello elkarrizketau eben eta esandakuak EITBko Nahieran programen plataforman dagoz entzuteko moduen.

Bistakue da segun eta ze urun klase ebalten dan eragin itzela deukela ogixan kolorien, gustuen... Egixe esateko gustu edarreko ogixe izen biher norberan lurrretan erne eta horittutako gari-alietatik hartutakue! "Oin eukiko dogu etxeko ga-

Gari-azauok joteko prest.




rixaz eindeko ogixe!". Irribarrie datorkixe bixoi hori esateran eta ez da gitxiagorako. Zenbatek esan leikegu holakoik?

Estibalitz González

# FEREDU

## SOLUTIONS S.L.



- \* HEZETASUNAK
- \* ERREHABILITAZIOA
- \* INPERMEABILIZAZIOAK
- \* MANTENIMENDUAK
- \* IGOGAILUAK
- \* ERREFORMAK
- \* FATXADAK
- \* ITE
- \* TEILATUAK
- \* GARBIKETAK

[www.feredusolutions.com](http://www.feredusolutions.com)  
699 476 112 / 946 423 649 ERMUA

## DAMARIS PANEK EITBKO "GEUREA LEHENA" KANPAINAN PARTE HARTU DU

Euskal Herriko hainbat kirolarik, abeslarik eta artistek parte hartu dute EITBk abiatu duen euskararen aldeko kanpainan: Damaris Pan margolari mallabitarrek, Xatiro rape-roak, Jasone Osoro idazleak, Iñaki Osa zestalariak, Patri Espinar kirolariak, Jon Plazaola aktoreak, Nadeth Agirre arraunlariak, Ane Irazabal eta Mikel Ayestaran korrespondentsalek, Zalao Ipiña artista plastikoak eta Ana Zubiaga zientzialariak. Damarisek artea ikasten ari diren pertsonen buruzko hausnarketa egiten du bere agerraldian.

## ZAPOREAK GKE-AREKIN ELKARLANA EGIN DU IZAROK



Zaporeak GKEarentzat dirua biltzeko helburuarekin, ekimena burutu du Izarok irailean. "49 koilara egin ditugu... Banan-banan pintatu ditugu, lehortzen ziren bitartean zaindu ditugu, limoitxo bat jarri diegu... Etxeko eta

inguruko maiteenen artean egin dugu eskulana –irakurri daiteke abeslariaren Facebooken–. Koilara hauen helburua da Zaporeakentzako dirua lortzea. Ahalik eta diru-gehien lortzea, zoritxarrez, beraien lana egiten jarrai dezaten". Koilarak 30 eurotan jarri ziren salgai, eta hurrengo egunetan agortu ziren. Zaporeak GKEaren helburua da Greziako Lesbos irlan dauden errefuxiatuei egunero janari duina ematea. Bestalde, proiektu honekin Izarok *Om* diskoko *Koilarak* abestiari omenalditxo ere egin nahi izan dio.

## MALLABIKO ARAZTEGIA KENTZEKO OBRAK HASI DIRA

Uraren Euskal Agentziak, Urak, Mallabiko araztegia kentzeko obrei ekin die. Mallabiko Udaletik jakinarazi dutenez, "2018ko abenduan inauguratu zen Mallabia eta Ermua arte-

ko espaloien azpian, hobi biltzailea ipini zen, eta araztegia kentzen denean, hobi biltzaile horretatik joango dira herriko ur fekalak eta hondakin-ura. Horiek bideratu ahal izateko, eraikuntza txikia egingo da, eta ura mugitzeko ponpak ipiniko dira bertan". Hodi biltzaile hauetatik Ermuraino joango da ura, eta bertatik Elgoibarrera, bertan baitago araztegia. 1.000.000 euroko aurrekontua dauka obra honek, Urak ordainduko duena. Udaletik argitu dutenez, 8 hilabeteko iraupena izango dute lan hauek, eta ez da beharrezkoa izango espaloian inolako lanik egitea.

## EMAKUMEZKOEN FRONTENIS MARATOIA BURUTUKO DA URRIAN

Mallabia FTK emakumezkoen frontenis maratonia antolatu du urriaren 24rako eta 25erako, eta izena emateko epea zabalik dago jada. Larunbatean, urriak 24, banakako partidak egingo dira eskolako frontoian, eta izena emateak 8€ko prezioa du. Urriaren 25ean, aldiz, bikoteka arituko dira herriko frontoian (16€ bikote bakoitzak). Gehienez 24 parte-hartzaile onartuko dira txapelketa bakoitzean, eta interesa dutenek 669 028 718 telefonora deitu beharko dute. Banakako txapelketa irabazten duenak jasoko du txapela eta 60€, eta bigarrenak kopa eta 40€; bikoteka irabazten dutenek, txapela eta 200€, eta txapeldunordeek, kopa eta 150€.

## IRAILEAN INAUGURATU DA TRABAKUKO PASABIDEA

Irailaren 16an zabaldu zen N633 errepidearen gainean eraiki den pertsonentzako eta animalientzako egurrezko pasabidea, Trabakuan. Obra honek 550.000 euroko aurrekontua izan du, eta iazko abenduan hasi ziren obrak, nahiz eta koronabirusaren krisiaren eraginez, 3 hilabetez gelditu egon diren. Mallabiko alkate den Igor Agirrek azaldu duenez, Goita eta Gereia auzoetako bizilagunek urte luzez eskatu diote Udalari errepidea segurtasunez zeharkatu ahal izateko azpiegitura. Horri erantzuteko, 2018an herri galdeketa egin zitzaizen auzo horietako bizilagunei, eta pasabidea errepide gainetik edo azpitik (tunela) nahiago zuten bozkatu behar izan zuten.

Dorleta Vidal



optika  
**itze**

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK  
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7      Tfnoa. 943 17 46 51

solozabal  
tabakoak

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33





quetzal

[arropa, bitxiak, opariak...]

Zubiaturre, 2 | 48260 ERMUA | 943170065  
www.quetzalmoda.com

ileapaindegia

Silvia

peluquería

Asteartetik ostiralera  
9:00-12:00 15:00-19:00  
Larunbata  
8:30-13:00





943 170474
688819336

# Mañeko Terraza egunero hobetzen!

Laster, udazkena eta negurako plater berriak:

- Gernikako baba gorriak
  - Intxaur saltsa
  - Barraskiloak
- ...eta beste hainbat!



Erreserbak:  
610 222 468  
[www.mañe.eus](http://www.mañe.eus)



# Herriko erloju zaharrak berrizteko ordua

Duela ehundaka urte, kanpai-hotsek markatzen zuten herritarren errutinen erritmoa. Ermuan, Erresuma Batutik ekarritako erlojuak mugiarazi zituen herriko kanpaiak ia bi mendez, ordulari *modernoago* batek haren lekua hartu zuenera arte (1950ean). Urte luzez elizako kanpandorrean baztertuta egon eta gero, Udalak bi erlojuak atera ditu haien gordelekutik, herritar baten proposamena aintzat hartu eta gero, eta elizaren oniritziarekin. Garbitu eta atondu ondoren, erakusgai jartzeko aukera aztertuko da, haien balioa nabarmentzeko eta herriko ondarea berreskuratzeko helburuarekin.

Duela zenbait urte, ikertzaile batek Durangaldeko kanpandorre guztiak aztertu eta sailkatu zituen. Emaizak aurkezteko hitzaldia eskaini zuen, eta bertan aipatu zuen inguruko erlojurik zaharrena Ermuko kanpandorrean zegoela. Juan Antonio Izagirre ermuarrari ez zitzaion aipamena oharkabean pasatu, eta herriko kanpandorrera igotzeko baimena eskatu zuen. “Hasieran ez nuen erloju zaharra ikusi, baina bat-batean han zegoen, ezkerretara, ia ezkutuan, zulo baten ondoan —dio Juan Antoniok—. Hura ordezkatu zuen erlojuak ere bertan zegoen, begi-bis-

tan”. Kontuari buelta batzuka eman eta gero, Udalera jo zuen Izagirrek, erloju horiek bertatik ateratzea komeni zela-eta, herriaren ondarea zirelako.

Aurtengo maiatzean bi erlojuak elizako dorretik jaitsi zituen Udalak grua baten birtartez. Ez ziren eskailera zaharretatik sartzen, eta zatitu eta gero, kanpaien ondora gerturatu, eta bertatik garabi batek beheka ekarri zituen. Orain, Juan Antonio Izagirre Zabalak (Francisco Izagirre Alberdi erloju-konpontzaile profesionala zenaren biloba) dihardu bi pieza historiko hauek zaharberritzen, eta diagnostika prestatzen.



Juan Antonio Izagirre Charles Pentonen 1772eko erlojuarekin.

Berak azaldu duenez, lehen ordularia, zaharrena, Charles Penton erlojugile famatuak egin zuen Londresen, 1772 urtean. Kontutan izanda hiru urte lehenago James Wattek lurrun-makina patentatu zuela, “pentsatu nola ekarriko zuten erlojuak Londresetik hona! —dio Juana nek—. Seguruenik Mantxako kanala arraunean edo belan zeharkatuko zuten, eta lurretik gero... Baina kanpandorrera ere igo behar zen, eta 100 kilo inguru pisatzen du! Harekin batera, gainera, 3 kanpai igo ziren: handi bat eta txiki bi, oraindik ere ber-

tan daudenak”. Ahalegin handiak egingo ziren elementu guztiak bere kokapenean jartzeko, esfortzu ekonomikoa alde batera utzi barik. “Pentsatzekoa da erlojuak eta haren garraioa Valdespinako markesak ordainduko zituela. Izan ere, badakigu eliza eraikitzen bukatzen lagundu zuela, eta agerikoa da elizako eta Valdespinako jaurregiko kupulen antzekotasuna”, esan du Izagirrek.

Pentoni enkargatu zioten erlojuak brontzeko da, eta *soneria* bakarrik zeukan, hau da, ez zeukan ez esfera ez orratzik, soinua bakarrik. Eta

**Plan B**  
Coffee Lounge      Gin & Beer

**Torrealday**  
ASESORES CONSULTORES

ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA

Goienkale Kalea, 9, Ermua • 943 17 44 35

[www.torrealday.es](http://www.torrealday.es)

**enolimp**  
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel.: 94 659 01 41 - 618 89 29 60  
E-maila: [info@enolimp.es](mailto:info@enolimp.es)  
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak  
Obra amaiera eta erreformak

[www.enolimp.es](http://www.enolimp.es)

**Horacio Decoración**  
VI Centenario 10 - Ermua  
943 03 15 80  
[www.dghoraciodecoracion.com](http://www.dghoraciodecoracion.com)

TAPIZERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK

etxean erlojua izatea ohikoa ez zen garai haietan, kanpaiek erreferentzia ematen zieten bizilagunei eguneroko zereginetan: ohetik jaiki, angelusa, meza.... Puntuetan eta erdietan eragiten zuen ordulariak kanpaien dilin-dalana, egurrezko *barrilete* batean lotutako soka askatzearekin batera. Soka behearino heltzen zenean, *barriletean* lotu behar berriro ere; lan horietan ibili ziren Francisco Izagirre erloju-konpontzailea, eta azken urteetan Doroteo Onandia, elizako sakristaia. Soka lotzeaz gain, bestelako lanak ere egin behar izaten zituzten, mekanismoa doitzeko. "Erloju honetan hozberoak eragina zuen: hotz egiten bazuen, pendulua uzkurto eta bizkorrago ibiltzen zen; beroarekin, al-diz, pendulua luzatu eta martxa motelde egiten zen", dio Izagirrek.

la 180 urte martxan eta 70 urte kanpandorreen gordeta egon eta gero, erloju zaharberri behar da (ugerra dauka, pendulua falta zaio, palankatxoak apurtuta daude...), eta txosten hori prestatutakoan erabakiko da nola konpondu eta erlojua non kokatu.


### Esfera eta argia

1950ean, Bernardo San Ildefonso alkatearen agindupean zegoen Udalak erabaki zuen erloju berria erostea, aurrekoa hondatuta omen zegoen-eta. Bi enpresen proposamenak jaso zituzten: Zaragozako Talleres Goli eta Gasteizko Vda. de Murua, eta arabarrarena onartu zuten. Baina onartu baino lehen, Izagirrek azaldu duenez, Vda. de Muruako egoitzara bisita egin zuten Ermuko alkateordea Jose Luis Zubizarretak (gerora

alkate izango zenak), eta Víctor Izagirre Gáratek (Francisco Izagirreren semeak), aditu gisa. Haiek egindako txostena aztertu ostean, 1950eko abenduan erlojua erosi zen. Hilabete horretan Víctor Izagirre Garate izendatu zuten erloju horren mantentze-lanen arduraduna, Doroteo Onandiari ordura arte egindako lanagatik eskerrak eman eta gero.

1951ko urtarrilean 43.405 pezetako aurrekontua onartu zen erlojua eta haren osagarriak ordaintzeko. Urte bereko martxoan 42.498 pezetako faktura jaso zuten, bi epetan ordaindu beharrekoa. Eta 1952an bigarren eta azken ordainketa egin zen (21.067 pezeta). Gastu hauei beste batzuk gehitu behar izan zizkieten: arutzeria (José María Ardanza), igeltserotza-lanak (Tiburcio Txurruka), burdineria (Etxarte Industria), elektrizitatea (Iturregi)..., hala nola erloju montatu behar zuen langilearen egonaldia eta mantenua Ermuan.

Erloju berri hau aurrekoa baino handiagoa zen, eta pisutsuagoa (200 kilo), eta egurrezko plataforma egin behar izan zioten kanpandorreen. Herritarrentzat ere aldaketa nabarmena izen zen mekanismo berri hau, berarekin batera 4 esfera jarri zirelako kanpandorreen, gaua heltzean argizatuta egoten zirenak. Erloju hau burdinezkoa zen eta, ohikoa zenez, 3 pisu zituen grabitate bidezko indar mekanikoko sistema gisa. Astean behin pisu horiek gora altxatu behar izaten ziren berriro ere, eskuz, eta bakoitzak 80-90 kilo inguruko pisua zuen (sokarekin izan beharrean, kable batekin lotuta). Horietako pisu batek, erlojuarenak, pisu gutxiago zeukan, eta



Vda. de Muruak egindako erlojua (1950).

Juananek gogoan du txikitari berau altxatzen laguntzen ziola osabari, Víctor Izagirreri. 1968an Víctorren lobak hartu zuen erlojuaren ardura, Iñaki Izagirrek, eta 1980an Emilio Praderak ekin zion. Urte horretan motore elektrikoak jarri zituzten erlojuari, eta pisuak behearino heltzen zirenean, automatikoki igotzen ziren. Horrela, mantentze-lanak gutxitu egin ziren.

Erloju hau martxan bazegoen ere, 2011n berria erostea erabaki zuen Udalak. GPS bidezko sistema elektriko-elektronikoa duen ordularia da, prezisio handikoa, eta inolako mantentze-lanak eskatzen ez duena. Orratzak motorizatuta daude, eta negua eta udako ordu aldaketak automatikoki egiten ditu; orduetan entzuten den kanpai-hotsak eta dilin-dalana ere motorizatuta daude, sistemak kontrolatuta, eta horri esker gauetan ez da kanpai hotsik entzuten.

Aurrerapenak aurrerapen, oraingo ordulariak eta lehengoek ez dute zerikusirik, baina bakoitza dagokion lekuan jartzeko ahalegina egiten ari da.

Dorleta Vidal

 <p><b>EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA</b> Otaola Hiribidea, 29 943 89 92 75</p> <p>MATRIKULA EPEA: Irailaren 1etik 28ra. Matrikula on-line egin beharko da helbide honetan: <a href="http://www.eoieibarheo.hezkuntza.net">www.eoieibarheo.hezkuntza.net</a> IKASGUNA plataformaren bitartez.</p>		<p>Alemana, euskara, frantsesa eta ingelesa. A1, A2, B1, B2.1, B2.2 eta C1</p> <p>Talde eskaintza eta ordutegiak ikusteko: <a href="http://www.eoieibarheo.hezkuntza.net">www.eoieibarheo.hezkuntza.net</a></p> <p>IKASTARO ERDIPRESENTZIALAK ere baditugu</p> <p>Ikasturte osoaren prezioa: 72,36 €</p> <p>GELA DESPLAZATUAK AZKOITIAN ETA ARRASATEN</p>
---	--	---



**CITROËN**  
**AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.  
Telefonoa 943 17 04 14

Ferretaria

**ANBOTO**

Burdindegi

Orain  
KOTXEKO GILTZEN  
KOPIAK ere  
egiten ditugu



943 17 69 76  
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)  
[www.ferreteriaanboto.es](http://www.ferreteriaanboto.es)

**Desiak**

PSIKOLOGIA  
ONGIZATE PERTSONALEKO ZENTROA

Nahia Rojo Bustinduy  
Psikologoa eta Sexologoa

Hitzorduak: 688 85 18 95

# Uxue Alberdi eta Iñigo Etxe Ermuan izango dira



IRAILAREN  
30ean  
19:00etan  
LOBIANO  
KULTUR  
GUNEAN

**Kontrako eztaeritik liburuan oinarritutako bertso-saio literario eta tertulia.** “Saio honek bi zati izango ditu. Alde batetik, Ane Labaka eta biok bertsoan arituko gara, Maite Berriozabalen esanetara, eta bigarren zatia tertulia izango da –azaldu digu Uxue Alberdik–. Bai bata eta bai bestea egongo dira oinarrituta *Kontrako eztaeritik* liburuan. Horregatik, bertso-saioan ez dakigu zer gai ipiniko dizkigun Maitek, baina berak liburua irakurri du, eta bertan aipatutako testigantzetatik

edota teorietatik abiatuta, egoera edo gai konkretuak ipiniko dizkigu. Liburu honen helburuetako bat bada ere emakumeok gure artean gehiagotan kantatzea, gai gehiagori, eta leku eta erre-gistro gehiagotan, eta hori praktikan jarriko dugu. Jarraian, bertaratutakoekin tertulia egingo dugu”.

**berbetan**  
jardunaldiak  
euskararen gaineko gogoetak



URRIAREN  
7an  
19:00etan  
LOBIANO  
KULTUR  
GUNEAN

Arg.: Ahoragasteiz.

**Solasaldi musikatua.** “Solalaldian ETS taldearen sorrerari buruz hitz egingo dut, baina nik hitz egiteaz gain gustatzen zait nire hitzaldietara etortzen direnek galderak egitea, eta hori eskatuko diet. Horrela, saioaren zati handi batean elkarrizketa moduko bat egingo dugu –aurreratu digu En Tol Sarmientoko abeslaria den Iñigo Etxek–. Tartean zenbait abesti joko ditut, entzuleek eskatzen dizkidatenak, eta horretarako gitarra akustikoa eramango dut. Gai anitzei buruz hitz

egingo dugu, gehien bat taldea, musika, nire bizitza eta baita euskarari buruz. Izan ere, taldean eta nire bizitzan ere euskaratze prozesu bat egon da”.

### Segurtasun neurriak

Uxue Alberdi eta Iñigo Etxe Lobiano Kulturgunean arituko dira, ordu eta erdiz, eta saio bakoitzean 65 lagunentzako lekua egongo da. Derrigorrezkoa da maskara eramatea eta eskuak gel hidroalkoholikoarekin garbitzea. Sartu baino lehen tenperatura hartuko zaie ikus-entzule guztiei, eta sarreran nahiz areto barruan bi metroko distantzia gorde beharko da beste ikus-entzuleekin. Igo-gailua ezinbestekoa bada bakarrik erabiliko da.

**hanigan's**  
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik  
Asteburu eta jaiegunetan,  
10:00etatik.

Komentukua z/g - 943030527

Bitsi-denda Tailer propioa Etoju-denda

**Senén**  
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA  
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

**ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA**

**PALACIOS SM**

ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA  
GREMIOEN KUDEAKETA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)  
info@palaciosfontaneria.com / www.palaciosfontaneria.com

660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23

## “Irakurri, Gozatu eta Oparitu” egitasmoa urria eta abendua bitartean burutuko da



Martxoaren 23an abiatzekoa bazen ere, uda osterarte atzeratu behar izan du Euskal Birusa Elkarteak aurtengo “Irakurri, Gozatu eta Oparitu” ekimena. Jendea euskarazko liburuak irakurtzera animatzeko helburua duen egitasmo hau urriaren 13tik abenduaren 9a bitartean burutuko da. Edizio honetan ez da egongo erosketa-txekeak eskuratzeko aukera, baina parte-hartzaileen artean liburuak eta e-bookak zozketatuko dira.

## Txabi Arnalek 3bui3 liburua argitaratu du



Txabi Arnal idazle ermuarrak 3bui3 liburua kaleratu du abuztuan, 3 urtetik gorako umeei zuzendutako lana. Arrautza handi batetik jaiotako 3 sairen abenturak kontatzen ditu ipuinak, eta Edebé argitaletxeak dionez, “liburuak istorioa simetrikoa kontatzen du, izenburua bezala, originala eta dibertigarria, behin eta berriro irakurtzeko eginda. Aldi bakoitzean, irakurleak zerbait berria eta ezberdina topatzen du, ilustrazioetan nahiz hitzetan”. Arnalek idatzitako ipuin honetako irudiak Julio Antonio Blasco ilustratzaileak sortu ditu. Ez da elkarrekin lan egiten duten lehen aldia, izan ere, elkarlanean sortu zuten *Jil Jilguero* ipuina duela urte batzuk.

### ALBOKA MUSIKA ESKOLAN IZENA EMAN DAITEKE

4tik-99ra bitarteko adin tartekoei, musika maite dutenei edo aspalditik musika-tresna bat jotzeko gogotsu daudenei, Alboka Musika Eskolak aukera zabala eskaintzen die: klarinetea, saxofoia, tronpeta, zeharkako txirula, biolina, biolontxelo, panderoa, trikitixa, eskusoinua, gitarra, gitarra elektrikoa, baxua, perkusioa, pianoa, txalaparta eta alboka. Ugariak dira ere eskolako ahots eta musika taldeak: musika modernoa, soka, trikitixa eta panderoa, eskusoinua, batukada, perkusioa, pianoa 4 eskutara, gitarren orkestra eta Pispillu abesbatzak. Izena eman nahi dutenek, Musika Eskolara jo beharko dute (Goienkale 2), albokamusikaeskola@hotmail.com helbidera idatzi, edo telefonoz deitu (943 17 18 00). Harrerako ordutegia, 9:30etik 12:00etara eta 15:30etik 20:00etara. Ostiraletan, 15:30etik 18:30era.

# Laburbira

Euskarazko film laburren XVII.zirkuitua - 2020



**GAU BELTZA**  
Euskaltzaleen Topagunea



**URAK DAKARRENA**  
Marilyn taldea



**ANTI**  
Josu Martinez

Irailaren 24an  
20:30ean  
ERMUA ANTZOKIAN



**TIGRE BAT**  
Amaia San Sebastian



**PIL PIL**  
Kristina Zorita



**MAMARRO**  
Ibon Iza Totorika


ANTOLATZAILEA



**KATEAK**  
Yolanda Mazkarian



**JAUZI BAT ETA PRIXT**  
Maitane Eyheramonho



**HARRIA HERRIA**  
Dimegaz Kultur Elkarteak

Euskal  
Birusa  
Elkartea



[www.topagunea.eus/laburbira](http://www.topagunea.eus/laburbira)

## KULTURA SAILAK HAMAR EKITALDI ANTOLATU DITU EUSKARAZ

Irailetik abendura bitarteko ikuskizunaren egitaraua argitaratu du Ermuko Udaleko Euskara Sailak, eta 17 ekitalditik 10 euskaraz izango dira. Umeentzako ikuskizunak, bertso jaialdia, kontzertuak, musika eta dantza, umeentzako eta helduentzako antzerkiak... Ekitaldi guztiak Ermua Antzokian izango dira, eta sarrerak salgai daude dagoeneko. Saioren batera joan nahi dutenek, bete behar diren osasun-segurtasun neurriak aldeztuz aurretik irakurri beharko dituzte (Ermuko Udalaren webgunean edo Lobiano Kulturgunean eskatu daitezke).

## EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLAK MATRIKULA ZABALDU DU

Ikasturte honetan Eibarko Hizkuntza Eskola Ofizialean ikasi nahi duten ikasleek irailaren 28a baino lehen eman beharko dute izena. Alemana, euskara, frantsesa eta ingelesa ikasteko aukera eskaintzen du Eskolak, maila hauetan: A1, A2, B1, B2.1, B2.2 eta C1. Matrikula online egin beharko da [www.eoieibarheo.hezkuntza.net](http://www.eoieibarheo.hezkuntza.net) helbidearen bitartez, eta helbide berera jo beharko da ordutegiak ikusteko. Eibarko Hizkuntza Eskola lekuz aldatu zen duela bi urte, eta orain Uni Eibar-Ermuan du egoitza.

## Ion Fiz diseinatzaile ermuarrak Nancy panpinarentzako arropa diseinatu du

Ion Fiz diseinatzaileak 32 jantzi eta osagarri ezberdin diseinatu eta josi ditu Nancy panpinarentzat, ahizpa Leslyrentzat, eta lagun Lucasentzat eta Selenerentzat. Itxialdian ekin zion lan honi, eta bere helburua da jostailuen esparruan modaren garrantzia aldarrikatzea. Jantzi bakoitzetik ale bakarra egin du, eta bildumagileei zuzenduta daude. Urtaro guztietarako patrioiak egin eta josteaz gain, panpinen kaxak eta bilgarriak ere diseinatu ditu. Fizek behin baino gehiagotan aipatu du umetan diseinatu zuela lehen soinekoa Nancyrentzat, eta 2002tik aurrera bere bildumetan panpin honentzako jantziak egon ohi dira.



## Ermuko Udalak eskola-materiala erosteko diru-laguntza eskainiko du

“Ermua aurrera” planaren barruan, 90€ diru-laguntza eskainiko die Ermua Udalak herriko familiei. Laguntza hauek aukera emango dute 2020ko irailaren 1etik urriaren 30era bitartean Ermuko dendetan egiten diren gastuak ordaintzeko: arropa, oinetakoak, kirol-materiala, eskola-materiala (testuliburuak izan ezik), material informatikoa, betaurrekoak eta lentillak. Eskaerak aurkezteko epea irailaren 21ean zabaldu zen, eta abenduaren 4an bukatuko da. Eskaerak Abiapuntu bulegoan aurkeztu ahal izango dira astelehenetik ostegunera 08:00etatik 19:00etara, eta 8:00etatik 15:00etara ostiraletan. Gainera, badago ere online egiteko aukera. Eskaerekin batera, libretaren titulartasunaren datuak eta egindako gastuen fakturak egiaztatzen dituen agiria aurkeztu beharko dira. Faktura horiek laguntzaren titularraren izenean egin beharko dira, eta erositako produktuak argi eta garbi jaso beharko dira bertan. Udalaren webgunean irakurri daitekeenez, “Udalak neurri bereziak hartu ditu Covid-19ak udalerriko talde ahulenengan eragindako krisiaren eragina gutxitzeko”. Diru-laguntza hauen bidez, bi multzo handiri lagundu nahi die: familiei eta tokiko merkataritzari.

**SAN ANTONIO**

**OKINDEGIA  
GOZOTEGIA**

Izelaeta, 40 Tel. 17 00 63

**AIZ**

**AIZ**

**Garraioak, S.L.**

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**AMAIA  
HARATEGIA**

**Bertoko Okelak**

Probaleku 5  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua**

**IKASTOLA**

1968tik Ermua euskalduntzen



# ESTHER CORREA

- **Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa?**

Zoriontsu izan nintzen. Kanean egoten ginen beti eta, parkerik ez zegoenez, mendian jolasten genuen.

- **Ordutik asko aldatu da Ermua?**

Agian bai. Gogoan daukat erreka oraindik estali gabe zegoela.

- **Eta gaztaroa?**

Txirrindulari federatua nintzen, eta asteburuetan bizikletan ibiltzen nintzen. 18 urterekin utzi nuen, istripua izan nuelako.

- **Zure lehen lana gogoan daukazu?**

Bai, 16 urterekin Iruñera joan nintzen, Klinika Unibertsitariarok sukaldeko laguntzaile-aprendiz bezala lan egiteko. 4 hilabete eman nituen bertan. Hona bueltan, ikastaro bat egin, eta negutegi bat jarri genuen Mallabian, baina laga behar izan nuen istripua izan nuenean.

- **Zertan diharduzu egun?**

Senarra ezagutu nuenean, haren familiaren denda hasi nintzen laguntzen. Aitagi narrebak ikusi zuen ondo moldatzen nintzela, eta Eibarren denda zabaldu zuen. Koinata eta biok egiten genuen lan bertan, baina orain urte asko daramatzat Ermuko dendan, senarrarekin.

- **Zer da lan horretan gehien gustatzen zaizuna?**

Dena. Askok gustatzen zait jendearekin lan egitea.

- **Erosteko ohituretan, aldaketa igartzen duzu azken urteotan?**



**Duela 50 urte jaio zen Donostian, baina Ermuko San Antonio auzoan hazi zen. Lau neba-arreben artean, bigarrena. Bi seme-alaben ama. Denda batean egiten du lan. Euskararekin konpromiso sendoa du.**

Nabaritzen da jende asko kanpora joaten dela erostera, baina ezin gara kexatu.

- **Aisialdian?**

Euskaltegiko irakasle batekin mendira joatea gustatzen zait, *spinning* egiten dut, eta noizbehinka bizikletan ibiltzera joaten naiz senarrarekin.

- **Irakurri duzun azken liburua?**

Arotzaren eskuak irakurtzen ari naiz.

- **Telebistan?**

Askok gustatzen zait filmak

ikustea, eta astearteetan *Ur handitan* ikusten dut.

- **Irratia duzu gustuko?**

Ez asko, baina entzumena lantzeko Euskadi Irratia entzuten dut.

- **Noiz hasi zinen euskara ikasten?**

Ganoraz, duela 5 urte, alabak animatu ninduelako. B2 titulua atera nuen, eta iaz hobekuntzan ibili nintzen.

- **Berbalaguneko kidea ere bazara aspaldidanik...**

Bai, eta oso garrantzitsua iruditzen zait, euskara prak-

tikatzeo aukera ematen dizulako.

- **Bidaitzea gustatzen zaizu?**

Bai, azkenaldian Nojara bakarrik joaten naizen arren, Japonera, Mexikora... edozein lekutara joango nintzateke!

- **Jatun ona zara?**

Bai, baina okela ez zait asko gustatzen. Aukeran, arrautza eta piper frijituak.

- **Zure bertute bat...**

Ondo konpontzen naizela jendearekin.

- **Eta akatsa?**

Nire buruarekin oso zorrotza naizela.

- **Eguneko zure momentua?**

Etxera heltzen naizenean.

- **Zerk eragiten dizu barrea?**

Jendearen umoreak.

- **Eta zure onetik atera?**

Gezurrak.

- **Erraz haserretzen zara?**

Ez, baina ez zait gustatzen gauzak behin eta berriro esan behar izatea, seme-alabekin esaterako.

- **Ondo moldatzen zara teknologia berrieekin?**

Ez, oso traketsa naiz, eta gainera ez zaizkit gustatzen.

- **Zure bizitzako egunik zoriontsuena?**

Alaba jaio zenean.

- **Eta hartu duzun erabakirik zailena?**

Duela bi urte minbizia izan nuen, eta asko kostatu zitzaidan horren ostean dendara itzultzea.

- **Zein albiste irakurri nahiko zenuke?**

Koronabirusa amaitu dela.

Dorleta Vidal

**Proba-Leku**  
Heapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A  
Tel. 943 17 05 42

**SEHIGA**  
PROTECCIÓN LABORAL  
PLAN BABESERAKO  
ORNIDURA

Goienkale kalea (Ermua)  
Tel: 943 172 454  
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

**TALAPARTA ABERNA**

Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGYAK 943 030 299**

## Modu etikoan zaintzen ditugu mendekotasuna duten pertsonak?

**P**ertsonak zaintzearekin zerikusia duten ikasketak egin ditugunok, 4 oinarri bioetikoen arabera jokatu behar dugu: benefizientzia, autonomia, justizia eta malefizientzia eza.

Benefizientiaren oinarri bioetikoak dio beharra duen pertsona bat zaintzen dugunean, helburua izan behar dela haren sufrimenduen kausak arintzea, maila fisikoan, zein psikikoan edo emozionalean.

Autonomiaren garapenaren oinarriari jarraituta, zainketen agente aktibo bezala ikusi behar dugu mendekotasuna duen pertsona hori. Nola lortu daiteke

hau? Hasteko, argi izan behar dugu bera dela bere gaixotasunaren informazioaren jabea, eta berak hartu behar dituela tratamenduen inguruko erabakiak. Ahalik eta informazio osatuenarekin hartu behar ditu erabaki horiek, eta zaintzen duten profesionalak eskaini behar diote informazio hori. Ahal bada, bi aldeen artean adostutako erabakiak izan beharko litrateke (baina baldintza hau ez da ezinbestekoa).

Justiziak zainketen eremuan eskatzen du mendekotasuna duten pertsona guztien artean baliabideak modu berdintsuan banatzea. Nire iritziz, baina, pertsona guztiek ez dituzte premia berdinak,



Juan Carlos Martín

eta funtsezkoa da gizaki guztien behar guztiei erantzuna ematea. Horrela izango gara benetan justuak.

Azkenik, malefizientzia ezak galarazten du zaindutako pertsona kaltetzea, ekintzaz edo omisioaz. Errotik kendu behar dira abusuekin edo tratatu txarrarekin zerikusia duten praktikak. Nagusitasun onartezina da zaintzaileek eragindako edozein abusu edo tratatu txarra. Bereziki nabarmenduko nituzke laguntza-zentroetan egiten diren abusuzko praktikak eta duinak ez diren jardunbideak, lehenbailehen eta betirako eten behar direnak. Beste alde batera begiratzeak konplize egiten zaitu.

“Argi izan behar dugu mendekotasuna duen pertsonak hartu behar dituela tratamenduen inguruko erabakiak”

Komunitateak

# San Pelayo

Aholkularitza  
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

SAGARDUI  
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305

ZERMIK®  
SISTEMA ELEKTRIKOEN GARAPENA  
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS  
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tz-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea  
Arrasate-Mondragón (Gipuzkoa)  
Telf: 943 23 10 12

IZASKUN TXURRUKA

Goienkale 9 Bajo  
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriazaskun@gmail.com  
peluqueriazaskun.wordpress.com

Zuri egokitzen den odontologia

La odontología que se adapta a tí

Dña. OLATZ GARCÍA ARREGUI Cof. nº 1264

- P.A.D.I
- IMQ
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

943 17 04 04

info@clinciasanpelayo.com

San Pelayo Zeharkalea 5  
48260 Ermua (Bizkaia)

# ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,  
telebistak,  
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

**LAN BILA**

Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Astelehenetik ostiralera. Orduka.  
© 681 310 989.

Neska gaztea, arduratsua eta esperientziaduna eskaintzen da pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo garbiketa lanak orduka egiteko. Egunez zein interna bezala.  
© 632 044 001

Neska eskaintzen da umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanetarako. Esperientziarekin. Orduka, jardun erdia edo osoa. Berehala hasi naiteke lanean.  
© 632 41 53 74.



Irailaren 25an Carlos, eta 27an Oihane Zorionak zuen urtebetetzean! Familiaren partez.



Irailaren 25ean Zorionak Ainere zure zazpigarren urtebetetze egunean! Segi beti bezain alai. Patxo handi bat familia guztiaren partez.



Irailaren 22an Zorionak Ariane! 8 urte jada gure bizitzak kolorez eta irribarrez margotzen! Egun zoragarria pasa, maitxia. Maite zaitugu!!



Ibai, irailaren 14an, eta Udane, urriaren 1ean Zorionak! Muxu asko etxekoan partez.



Zorionak Ane!! Irailaren 5ean 6 urte bete duzu! Neska handia zara! Musu asko izaro, Eder, Nico eta Vanesaren partez!

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko,  
bidali mezua: [drogeten@gmail.com](mailto:drogeten@gmail.com)  
Azken eguna: **Urriaren 21a.**

**Enter**  
INFORMÁTICA  
SALMENTAK  
IRAKASKUNTZA  
ZERBITZU TEKNIKOA  
VI. Mendeurrena 19, behea  
943 17 90 37  
[enter@informaticaenter.com](mailto:enter@informaticaenter.com)

**arral**  
Telf.: 943 17 60 75  
**banatzaile ofiziala**  
- Luis Cañas familia - Pazo Señorans - Txakoli Akarregi  
- Añada Real - Vicente Gandía - Milana  
- Yllera taldea - Oriol Rossell - La Loca Juana  
- Gomez Cruzado - Astobiza txakolina - nitida  
[arral@arral97.com](mailto:arral@arral97.com) - Pol. Ind. Gaitondo Goikoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

Hamburguesería  
**TITANIC**  
  
Pintxo dastaketa  
poteoan  
Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

**Kopi-Fax**  
FOTOKOPIAK  
KOLOREZKO FOTOKOPIAK  
HANDIPENAK - TXIKIPENAK  
PLANOAK - AZALEZTAPENAK  
FAX PUBLIKOAK  
INPRIMAKETAK KAMISÉTATAN  
Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

**NEREA IÑIGUEZ HORTZ KLINIKA**  
  
San Inazio 4 - Ermua  
943 030 512 / [niklinika@gmail.com](mailto:niklinika@gmail.com)

**MALLABIA  
1974**

Argazkiko emakumeak  
kintoen bazkaria egiteko  
elkartu ziren,  
eta argazkia atera.

Bertan agertzen dira:

Sabina Totorika,  
Dominga Uria,  
Mikaela Aranburu,  
Paulina Astarloa,  
Josefa Uria,  
Maria Aranburu,  
??,  
Maria Totorika,  
Purita Arana  
eta Isidora Txurruka.

**ERMUA  
1930**

Felix Izagirrerekin ezkondu aurretxoan, Juanita Solozabalen solteratako despedida ospatu zuten herriko hainbat andra gaztek orain 90 urteko iraileko egun batez. Erretraturako paratu ziren gorengo ilaran, ezkerretik eskumara, Maria Salaberria, Maria Areitioartena, Maria Arzuaga, Ciriaca Acha, Filo Rodríguez eta Vicenta Yarza. Erdikoan, ----, Lucre Izagirre, Juanita andregaia, Angeles Solozabal eta Paulina Iriondo. Beherengoan, Benita Olañeta, Eladia Unamuno, Maria Bengoetxea, Dolores Mallagarai eta Antonia Izagirre.

\* Uztaileko argazkian, izena falta zuen pertsona Antonio Fernández da, atzeko ilaran ezkerretik eskumara bostgarren dagoena.

**KARABIXA**

**KARABIXA KAFETEGIA**  
Egunero 8:30etik aurrera zabalik


Eskuz egindako  
terapietan adituak

**ARTROS**  
FISIOTERAPIA MANUAL

Probaleku 5 · 48260 · Ermua  
617 680 156  
[www.fisioterapiamanualartros.com](http://www.fisioterapiamanualartros.com)

**Dejate  
QUERER  
BERRIA  
ERMUA**

Duela urtebete hasi ziren plazako estalpea eraikitzeko obrak, oraindik bukatu ez direnak. Uste duzu 2020a bukatu baino lehen plazako obrak amaituta egongo direla?



- Bai: 6 boto.
- Ez: 99 boto.

Irailaren 14tik 18ra egon da inkesta honetan parte hartzeko aukera, eta guztira 105 boto jaso dira.



Iberikoetan  
espezialistak

*Mayte*

VI Centenario 5 · ERMUA  
943 172 412

**PUB YOMY**

Zubiaurre  
kalearen  
bihotzean

**URRETA** burdindenda

* Etxea	* Giltzak
* Tresneria	* Sarrailagintza
* Brikolajea	* Kit altzariak
* Erailak	

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

**KRABI**

Ileapaindegia  
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

**ZINEA**

*Hilaren 3tik 6ra*  
*Hilaren 10etik 13ra*  
*Hilaren 17tik 20ra*  
*Hilaren 24tik 27ra*  
*Hilaren 31tik 3ra*  
 Zehaztu gabeko filmak.  
 Ermua Antzokian.  
 Hainbat ordutegi.

**ZINE-KLUBA**

*Hilak 1*  
*Hilak 8*  
*Hilak 15*  
*Hilak 22*  
*Hilak 29*  
 Zehaztu gabeko filmak.  
 Ermua Antzokian.  
 20:30ean.


**UMEENTZAKO ZINEA**

*Hilak 4*  
*Hilak 11*  
*Hilak 18*  
*Hilak 25*  
 Zehaztu gabeko filmak.  
 Ermua Antzokian.  
 17:00etan.

**UMEENTZAKO EKITALDIAK**

**Hilak 3**  
 Umeentzako ipuin-kontaketa ingelesez.  
 17:30ean. Lobianon.

**Hilak 7**  
 Umeentzako Ikuskizuna:  
 "Bizi dantza",  
 Pirritx, Porrotx eta  
 Marimototsen eskutik.  
 17:00etan eta  
 19:00etan.  
 Antzokian. Sarrera: 6€




**Hilak 24**  
 Umeentzako musikala:  
 "Epa txiki!", Demode  
 Quarterren eskutik.  
 17:00etan.  
 Antzokian. Sarrera: 4€

**Hilak 31**  
 Umeentzako ipuin-kontaketa.  
 17:30ean. Lobianon.

**MUSIKA**

**Hilak 2**  
 Kontzertua: Mikel  
 Ereñxun. 22:15ean.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 12€



**ERAKUSKETAK**

**Hilaren 11ra arte**  
 Margoak: Alberto  
 Ramírezen lanak.  
 Lobiano Kulturgunean.  
 18:00etatik 20:00etara.

**Hilaren 12tik 25era**  
 Mikologiari buruzko  
 argazkiak.  
 18:00etatik 20:00etara.  
 Lobiano Kulturgunean.

**ANTZERKIA**

**Hilak 16**  
 "Dando el cante".  
 La Nereren eskutik.  
 22:15ean. Ermua  
 Antzokian. Sarrera: 8€.

**BESTELAKOAK**

**Hilaren 22tik 25era**  
 Mikologiari buruzko  
 jardunaldiak: hainbat  
 ekitaldi. Lobianon eta  
 plazan.  
**Hilak 30**



Bertso jaialdia:  
 Maialen Lujanbio,  
 Uxue Alberdi,  
 Andoni Egaña,  
 Onintza Enbeita,  
 Unai Iturriaga  
 eta Beñat Gaztelumendi.  
 Gai jartzaile:  
 Maite Berriozabal.  
 22:15ean.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 10€

Patxi López

**TXINDURRI  
 TALDEA  
 Tokian  
 tokiko**

**PRO  
 arraindegia**

**ITSASKIAK  
 ARRAIN FRESKOAK  
 ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21  
 943 17 16 96  
 ERMUA

**Infreñu  
 Taberna**

Kardenal Orbe plaza  
 943 174584  
 www.infretaberna.com

**ALBOKA**

**MUSIKA  
 ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com



# ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

2020/21

Matrikula epea zabalik

Zure bizitza

**EUSKARAZI!**

Maila guztiak: A1, A2, B1, B2 eta C1

Ordutegi zabalak / Txandakako taldeak  
HABEren azterketa ofizialak maiatzean eta urrian  
16 urtetik gorakoentzat

#### Dirulaguntzak

Langabetuek eta lehen mailako ikasleek matrikularen prezio erdia  
Izena emateko epea irailaren 25era arte

#### BULEGO ORDUTEGIA:

9:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara

**ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA**

Teresa Murga Eraikina

Goienkale, z/g 2. Solairua

Tf.: 943 17 09 25

[euskaltegia@udalermua.net](mailto:euskaltegia@udalermua.net)

# AEKn, IRAKASLE BATEK BIK BESTE BALIO DU.

Irakasten daki eta  
ikas dezazun nahi du.



Janire Urrestarazu Aizpuruá, AEK-ko irakaslea.



## EUSKARA-IKASTAROAK Ermuko Kaltxango AEK

2020/2021 | MATRIKULA ZABALIK

### MAILA GUZTIAK

A1, A2 (Hasiera maila)  
B1 (1. maila) | B2 (2. maila)  
C1 (3. maila) | C2 (4. maila)

### IKASTARO BEREZIAK

Gazteentzat  
Gurasoentzat  
Merkatarientzat

### MINTZA-TALDEA | AUTOIKASKUNTZA IVAP-IRALE-OSAKIDETZA

**Txandaka aritzeko aukera**

%100era arteko diru-laguntzak

**EUSKALTEGI HOMOLOGATUA**

**Matrikularekin batera "aizu!" aldizkariaren doako harpidetza**

Zearkale 16,

**943 17 19 40 · 688 746 480 · kaltxango@aek.eus**